# etxea

Paco Roca






FFFFFFFF
CLONC
CLONC


CRAK
CREK
CRAK
CREK
SARRAILA OSO GOGOR DAGO.
SEGURU ZAUDE GILTZA HORI DELA?
BAI BA. HONEK IZAN BEHAR DU.
NIK USTE.
CLAP


ORAIN EZIN GILTZA ATERA.
UF!
HAU HEZETA-SUN KIRATSA.
NORMALA.
ETXEA ITXITA EGON DA URTEBETEZ.
PERTSIANAK JASO BEHAR DITUGU, EGURASTEKO.
E-EZIN DITUT GILTZAK ATERA. SAIATU ZU...


EZ DAGO MODURIK.
PERTSIANA APURTUTA DAGO.
CRAK CREK


...HOZTEN BADA, AKABO.
ETA AITA? ZERGATIK EZ DATOR?
UMEAK ORAIN JAN BEHAR DU.
NORK NAHI DU ARDOA?
KOMUNEAN DAGO, EZ DAKIT ZER DEMONTRE KON-PONTZEN.
DENOK HEMEN ZAIN, ETA BERA BERE GAUZETAN, BETI BEZALA.


ZU SILVIA ZARA, EZTA?
ARDORIK NAHI?
BAI, MESEDEZ.
DENA ONDO?
MOSKORTZEN ARI NAIZ, EA ERAMAN-GARRIAGOA ZAIDAN LE-HEN BAZKARI HAU ZURE FAMILIAREKIN.
IA LAURAK DIRA, ETA ORAINDIK BAZKALDU GABE. EZ GARA ZORTZIETAKO SESIORA HELDUKO.
LASAI.
BAI, BAINA ZINERA JOAN NAHI NUEN, IDAZTEKO ENTZERRATU AURRETIK. AZAROA BAINO LEHEN ENTREGATU BEHAR DUT NOBELA.
TIRA, ZURE AITAREN EGUNA DA ETA...
ZERGATIK EZ DUGU BARRUAN BAZKALDU? UMEA HOTZAK DAGO.
BEGIRATUKO DUZUE ZERTAN ARI DEN?
AITAREN KONTUAK. BETI HEMEN BAZKALTZEKO MANIA DU.
JOSÉ, ZATOZ HAU IKUSTERA.



BADAKIT NONDIK DATORREN HEZE-USAINA.
URA IRTETEN DA HORTIK.
DEPOSITUA.
AITAK KONPONDU NAHI ZUEN.
BAINA ERDIBIDEAN GERATU ZEN.
ZERGATIK EZ ZOAZ AUTOA HUSTERA NIK HAU SIKATZEN DUDAN BIARTEAN?


SILVIA, ZER DAUKAZU HEMEN? KRISTON PISUA DU!
HAU GUZTIHAU ASTEBURU BAKAR BATERAKO?
TOC
TOC


IZORRAI,
MOTEL.


ZER JAUZI ZAIZU?
BADAKIZU ZEREZ ESTALTZEN ZITUEN AITAK MAHATS MORDOAK, TXORIEK JAN EZ ZITZATEN?
NIRI BURUZKO PRENTSA EBAKINEKIN: LAN EGITEN NUENEKO TELESAILEKOAK, NIRE NOBELAREN ERRESEINAK...
ZU BAI EGOZENTRIKOA. ZERTARAKO GORDE DITUZU?
AITAK PRENTSA IRAKURTZEN EZ ZUENEZ, EBAKINAK GORDETZEN NIZKION, JAKITEKO ZERTAN ARI NINTZEN ETA BIZITZA ONDO ZIHOAKIDALA.
PENTSATUKO ZUEN PAPEROK BALIAGARRIAGOAK ZIRELA HORRELA.
SEGURU EZ ZUELA EZTA ERRESEINA BAT BERA ERE IRAKURRI.


...NIK ERE BADUT HORREN MODUKO ESKULAN BAT.
AMAREN EGUNEKO OPARI TIPIKOA ZEN.
EZPATA HORIEK TOLEDON EROSI GENITUEN, AUTO BERRIA EROSI ETA HARA JOAN GINEN BATEAN.
USTE DUT HORI IZAN ZELA EGIN GENUEN AZKEN BIDAIA. ARREBA, CARLA, JAIO BERRIA ZEN.
ETXE HONETAN DAGOEN GUZTIA APURKA-APURKA EKA-RRI GENUEN, BIZI GINEN PISUA TXUKUNDU ETA EGOKITU AHALA.
DENBORAREKIN, HEMEN AMAITU DUTE GURASOEK JADA ERABILTZEN EZ ZITUZTEN TRASTE ZAHARREK ETA NEBA-ARREBOK BAZTER UTZITAKOEK.
ETA ENTZIKLOPEDIA HORI EPEKA EROSI GENUEN. ALE BERRI BAT HELTZEN ZENEAN, FAMILIA OSOA BIL-TZEN GINEN BEGIRADA BAT EGITEKO.
ETXE HAU EGIN GENUENETIK, HONA ETORTZEN GINEN OPOR GUZTI-GUZTIETAN.
ERLOJU HORI NOBIA BATEK OPARITU ZIDAN. ZARATATSUEGIA ZENEZ, HONA EKARRI GENUEN.
HAIN GUSTU TXARREKO NOBIA BAT IZAN DUZU? ESKERRAK NI EZAGUTU NAUZUN.


HONA ETORRIZ GERO "NOR BIZI DA HEMEN?" EDO HALAKO PROGRAMA BAT, IZUTUTA ALDE EGINGO LUKETE. EZINGO LUKETE ASMATU ZEIN ZEN ETXEJABEEN AUKERA ESTETIKOA.
ETXE HONETAKO DEKORAZIOA DENBORAN ATZERA EGITEA DA. BEGIRA, HORI FAMILIAKO GARAIKURREN ARASA DA: HOR DAUDE GURE ARREBA CARLAREN JUDO ETA ATLETISMO GARAIKURRAK...
KOPA HORI IKUS-TEN?
AURKEZTU NINTZEN LEHEN IDAZKETA-SARIKETAKOA DA.
IRABAZLEA?
HIRUGARRENA. HAMAR BOTILA ESNE ETA GARAIKURRA IRABAZI NITUEN.
"ERAMAN CERVERA...
...ESNE GOXOA ZURERA".


URTETAN IBILIA NAIZ PUBLIZITATE-AGENTZIA HANDI BATEAN. EGIN NIRI JARAMON...
...HORRETAZ BADAKIT ETA.
ERAMAN CERVERA, ESNE GOXOA ZURERA
BIKO ERRIMATUA, GARAIPEN SEGURTATUA. KANPAINA HANDIEK ESLOGAN ERRIMADUNAK DARABILTZATE.
IDAZLANEAN BIKO ERRIMATU ON BAT SARTZEN BADUZU, ZEURE ALDE IZANGO DUZU LEIHAKETAKO BABESLEA.
GARAI HARTAN, INOIZ ENTZUNDAKO BIKO ERRIMATU ONENA IRUDITU ZITZAIDAN, NERUDAREN EDO BAUDELAIREREN MAILAKOA.
ZORIONEZ, EPAIMAHAIA EZ ZEN NI BAINO ZORROTZAGOA.


PUBLIZISTA IZAN ZEN ZUEN AITA?
HOR NONBAIT.
ESATEN ZUENEZ, URTE ASKOAN EGON ZEN LANEAN PUBLIZITATE-AGENTZIA HANDI BATEAN.
PATATAS
IDAZLE IZAN NAHI NUELA ESAN NIONEAN, AGENTZIAKO JENDEA AURKEZTU NAHI IZAN ZIDAN; AHOLKUAK EMATEN ZIZKIDAN...
HAREN URREZKO ARAUA, DENA ERRIMATZEA.
...IRAGARKIAK ERAMATEN NITUEN EGUNKARIETARA.
KARNET FALTSU BAT EMAN ZIDATEN, ETA 16 URTEREKIN AGENTZIAKO AUTOA GIDATZEN NUEN.
MANDATUAK EGITEN NITUEN, BAITA NAGUSIAREN MAHAIA GARBITU ERE.
ESATEN ZUEN GARBIKETAKO ANDREAK BAINO HOBETO UZTEN NUELA.
IZAN ERE, HORKO ARGAZKI HORRETAN DON DRAPER-EN ANTZA DU.
MMMM!
ZER?
SERIO ARI ZARA?
ZER EGINGO DIOT... TELESAIL GEHIEGI IKUSTEN DITUT.
GERO, DENBORAREKIN, JAKIN NUEN ZEIN LANPOSTU IZAN ZUEN PUBLIZITATEAREN INDUSTRIA HANDIAN.
M13239


SEGURUEN, SEME IDAZLEARI LAGUNDU NAHIKO ZION.
USTE DUT INOIZ EZ ZUELA JAKIN ZER LAN EGITEN NUEN.
IKUSI DUZU ZER EGIN ZUEN NIK GORDETZEN NIZKION PRENTSA EBAKINEKIN.
ETA ZER EGINGO DUZUE ETXEAN DAU-DEN GAUZA HAUEKIN GUZTIEKIN?
EZ DUT PENTSATU...
Feliz dia de la MADRE
DENA ZAKARRETARA BOTA EDO.